

PERU ABARKA-ren 6. AUTUA

Euskal literaturan, aho batez gorai patua izan da Mogelen «Peru Abarka» idaztia. Bere autuetan zehar Mogel-ek orduko Bizkaia (eta hedaduraz Euskal Herria) hainbat gauza eta pasadizuen bitartez azaltzen digu.

Tubalismoak eragindako ideoloji lingistikoa nagusi zen garai baten kokaturik, (XVIII-XIX mende hasiera) Mogel bere idatzietan joera horren jarraitzaile sutsua ageri zaigu. Larramendirengandik hasita, Kardaberaz-ek eta Mendiburu-k segituko duten bidearen hildotik doa gure idazlea. Halare azken bi ahueken antzera bere lanaren zati bat (eta txikiena) euskaraz egingo du. Horrexegaitik, euskararekin topo egiterakoan, eta bera jaiotzez Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalkien arteko lurraldekoa izanik, euskara eta bere hizkelgien isomorfismoa, batasuna eta alkar-ulermena erakusten saiatuko da, euskaldunak euren hizkuntzaren balioaz jabe izan daitezen.

Hona emen bere hitzak, Peru Abarka-ren erderazko hitzaurrean:

«Es muy regular que este escrito llegue a manos de algunos peritos guipuzcoanos y que tengan por tosco el dialecto vizcaino... No juzgaban así los famosos e imparciales Cardaveras y Larramendi, los que hacían particular estimación del bascuence del pueblo del doctor Peru...» (19 orr.)

Baina Peru Abarka liburuaren barruan inon agertzen baldin bada helburu hau seigarren autuan da. Bertan, Mogel-ek

obraren haria askatzeaz gainera (Maisu Juan-en damuketa) hiru euskalki nagusien ordezkariak mintzarazten ditu alkarrekin. Horrekin batera, Tubalismoaren etimolojiak abade baten ahoan badaukate bere tokia.

Beraz, Mogel-ek bere obrari eman nahi dion kutsu didaktikoari jarraituz

«Estos dialogos no se dirigen a la instruccidn de la juventud bascongada, sino a la de los que son tenidos por muy literatos. Parece algo extravagante el titulo de la obra, pero no lo sera a quien atentamente considera que un rustico bascongado puede ser doctor y maestro de su lengua y ser catedratico de ella, llamando a su escuela de las montafias a clerigos, frailes, caballeros y demas que no se han fatigado en meditar el artificio curioso ni las saladas expresiones de dicho idioma». (6 orr.)

Hiru Xedetan konkretatuko litzateke beraz seigarren autu honen marnia, laburpen gisa:

A) Euskararen batasuna eta alkar-ulerpena: frantses euskalduna, giputza, maisu Juan eta Peru-ren arteko alkar hizketa.

B) Tubalismoaren ideologia; Euskara hizkuntz garbia eta aintzina da: abadea eta etimolojiak.

D) Irakaspena: Euskaldun onen eremura (Peru Abarka-ren mundura) dator Maisu Juan, arbasoen gizartera eta ohituretara.

Hiru atal hauek jarraian aztertuko ditugu sakonago eta zabalago.

A) Fraetses euskalduna, giputza, Maisu Juan eta Pe-Ero-ree arteko alkar-liizketa,

Zati honetan Mogel-ek gaineratu nahi ditu euskaldunen arteko bi aurreritzi oker: bata, ohizkoa izan den beste euskaldunekiko gaitzespena eta bestea euskara guztien ezinezko alkar-ulermena. Horretarako baliatzen da pertsonai bitaz: Giputza eta frantses euskalduna, Frantziako iraultzatik ihes egina:

«Gerla cer dan ez dut jaquin. Ihes eguin ituen andic, ta ebil-

du naz Espanaco iri euscaldunetan nola ala ezcutuz cdo agueriz» (169 orr.)

Eta haiekin batera dihardue Peru-k eta Maisu Juan-ek:

Peru: «Ez dozu uste izan biar bizcaili campora ez daguala gauza onic. Bana igaro jatzu zuri leengo zoraasuna, ta ezagutu dozu, zuc dongatzat, lapur-usainecotzat, sorguintzat ta guzurtizat ceuncan iuebaguin prances au, dala guizon cinzo, eguiazti, on ta cristinau garbi bat. Quiputz arzain ta gaztaeguinau bere ez dala edo celangua, ta bai ondo vicija, ta baldresquerija baguia, ta bata ta bestia onac diriala adisquidetzata» (168 orr.)

Kanpokoak beraz hain usain txarrekoak ez badira ere, are gutxiago haien euskara: guztiz ulergarria dela adierazteko, Mogel-ek euskaldun belarriei atsegina zaizkien errekurtsioak erabiltzen ditu:

Bertsoak

«Guerlara ethorri guinean
gure vicien perillean
gure aguintariac frances
alons, chasseurs, avancez,
guc euscara eranzutea
diabriac eraman bacincz» (169 orr.)

Erraunak:

Mogel-ek, Oihenart-ek, XVII mendean, idatziriko «Atsotitzak eta Neurtitzak» liburutik hartutako esaerak jartzen ditu euskaldun frantzesaren ahoan, hala nola:

«Adiskidea saharic contua berriric» (171 orr.)

B) Tubalismoaren Ideologia

Aurrckoa ikusirik, Mogel-ek hementxe euskararen batasuna adierazi ondoren hizkuntz honen mamia eta sustraia azaldu nahi du. Harian sartzen da «Abadea», etimologjista. Abade honek aurrez bildutakoei Tubalismoaren araberrako euskarazko etimologji batzuk proposatzen dizkie. Aipatzen da teoria honen aintzindaria eta etimologjista:

«Larramendic bere ez jua edertuago esplicatuco» (173 orr.).

Baina ez da honetan amaitzen jokia. Mogel-ek ahapaldi luze batez, «Abade» honen ahoan jartzen ditu euskaraz egin den tubalismoaren zehaztapenik laburtuena:

Babel-go dorrea: «Lau guizon eta lau andra... erabagui eben eguitia torre chito luce bat euren icena onrauba izan cedin». (185 orr.).

Bere deuseztapena: «Confusinoe edo alcar aitu ecinagaz ichi bear izan cutseen torria amitutiari (185).

Bere arraZoiak: «Aztu eraguin len equijen verbeetia, iraatsi beste verbeeta batzuc» (185 orr.).

Tubal Noe-ren loba Espainiarako etorrera: «Espanara etortia Tocau jaqueela Tubal berari» (186 orr.).

Berak ekarritako berbeta: «Eusqueria zala verbeta au» (186 orr.).

Eta ondorioz tubalismoaren karakteristika izango den euskeraren aintzinasuna:

«Eusqueria zan anchinaco Espafia guztico verbeetia. Eusqueriac ez dauca ezagututen dirian beste verbeetacaz alcartasunic» (186 orr.).

Bestaldetik abade honek ez du bukatuko bere berbaketa euskararen ikasi beharra aipatzeke. Gero ikasitako euskara hori baserritarrei eta nekezaleei erakusteko eta irakasteko.

«Erosico ditut, topau aldaidazan, basco eta quiputzeko liburubac bere eusquera guzti guztietacua aituteco» (187 orr.).

Argo dago hitz hauen bitartez Mogelen beraren ideologi linguistikoa. Badirudi beraz «Abade» honen berbetan zehar Mogel-ek berak berba egiten digula.

Honela orain arteko irakaspena agerian dago: euskara bat da, Tubal-ek ekarritakoa, guztiz antzina eta beste hizkuntzekin

zerikusirik eta senidetasunik ez duena.

D) Irakaspema

Azkenez obraren haria askatu egiten da Maisu Juan sinesgaitza eta euskaldun kaxkarra, Peru-ren eta beste guztien ereduari jarraituz, damutu eta bihurtu egiten da bide onera:

«Zure verba, onac, zure eheco ta ehecuen jarraigari edo ejemplu onac iraatsi ditut nire bizitzan gogo barri ta on izatecuac» (194 orr.).

Halare «Bide on» hau Euskal Herriak ordurarte ezaguna zuen bizimodua da, Mogel-en ustez: foruak, euskara, ohiturak eta abar luze bat, hain zuzen ere "momentuko gizarte baserriar hurari zegokiona. Hitz batez esateko «Ancient Regime* delakoak eraikitako gizartea. Baina nabardura batekin: idealizazioa. Peru Abarka-ren orrialdeetan zehar gizarte horren idealizazioa ageri zaigu edozein aipamenetan edo alkar-hizketan. Baita ere seigarren autuan eta bereziki'oso herritarra den zuzentza edo justiziarekiko gaitzespena:

Alguazila eta eskribaua, Maisu Juan-en bila datozela, hona hemen bere hitzak:

«Zain dagoz nor jausi aldedin cetan edo atan esesteko, paperac balcituteco... Aztuten dira erruquijaz.~» (193 orr.).

Azken batez «Pera Abarka»-ren mundua horixe da: bere •hortan itxia, tradizioei lotuta eta horrekin batera eraso gogorrean bizi den mundua. Erasoak liberalismoaren hildotik datoz: legeak desegin, hizkuntza baztertu nahi da Madrifetik. Horri kontrajartzen zaizkio hizkuntzaren amtzinatasuna eta euskaldunen ohitura onak, Peru Abarka-ren ahoan.


Kinka larri honek, Peru Abarka-ren sasoiari planteatzen hasi zena (XIX gizaldiaren hasieran), gaurdaino iraun badu ere, funtsean euskal gizartearen gatazka garrantzitsua suposatu du urte askotan. Irteera denon adimenean dago: industrializazioak ekarri zuen aldaketak niundu honekin amaitu bazuen ere, gure hizkuntzak trakets-makets aurrera jarraitu du.

Eta horretan datza honelako liburu klasikoak irakurtzean askotan bururatzen zaigun dema edo desafioa, hau da, gizarte aldaketei eta gizarte aldaketekin batera, etorkizunean euskarak bere lekua irabazteko duen beharra. Lan horretan badu garrantzirik atzera begiratzeak, oinarri sendoak izateko eta batz ere euskaldunek dugun mundua eta gizartea ausnartzeko eta antolatzeke era berezia ez ahaztuteko. Hala bedi.

A. JIrrutia

Oharra:

«Peru Abarca»-ren Aipamenak Durangoko «Gerediaga Elkar-teak» 1981 urtean egindako edizio fascimiletik eginak dira.



ESTUDBO
FOTOGRAFJCO

Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)

San Miguel kalean, 14
Urrut: 673 0509
AMGMEBEETA

Tranabarren-Bloque, 1-4-13
Matiemia = Abadiano